



Departamento de Economía Financiera II
Finantza Ekonomia II Saila

FACULTAD DE CIENCIAS ECONÓMICAS Y EMPRESARIALES

EKONOMI ETA ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MERKATARITZA IKERKETARAKO APLIKAZIOAK

5 PRAKTIKA: ANALISI KAUSALA

JON CHARTERINA ABANDO


VIRGINIA RINCÓN DIEZ




OCW 2016

MERKATARITZA ESPERIMENTUAK


Test publicitario.sav fitxategia zabaldu. Bertan, bost taldek, bost elkarrizketarekin bakoitzak, emandako puntuazioak jasotzen dira. Elkarrizketatu bakoitzak iragarki bat ikusi eta 0tik 10ra doan puntuazioa eman dio. SPSSren goitibeherako menuetik **Analizar**, **Comparar medias**, **Anova de un factor...** prozedura aukeratu.



Zabaltzen den leihoan **puntuac** aldagaia menpeko aldagaien laukira pasatu eta **n_anunci** aldagaia faktorearen laukira:



Opciones... botoia sakatu eta **Descriptivos** eta **Gráfico de las medias** aukerak hautatu.



Continuar eta **Aceptar** botoiak sakatu. Emaizen editorean ondorengo bi taulak agertzen direla ikus daiteke:

Descriptivos

Puntuación obtenida

	N	Media	Desviación típica	Error típico	Intervalo de confianza para la media al 95%		Mínimo	Máximo
					Límite inferior	Límite superior		
					1	5		
2	5	2,80	,837	,374	1,76	3,84	2	4
3	5	5,00	1,225	,548	3,48	6,52	4	7
4	5	9,00	1,225	,548	7,48	10,52	7	10
5	5	6,60	1,673	,748	4,52	8,68	4	8
Total	25	4,84	3,118	,624	3,55	6,13	0	10

ANOVA de un factor

Puntuación obtenida


	Suma de cuadrados	gl	Media cuadrática	F	Sig.
Inter-grupos	204,560	4	51,140	35,514	,000
Intra-grupos	28,800	20	1,440		
Total	233,360	24			

Lehenengo taulak batez bestekoa, desbideratze tipikoa eta akats tipikoa erakusten ditu, hala nola, konfiantza tarteak eta balio maximo eta minimoak.

Taula honek zein iragarkik lortu duten puntuaziorik altuenak eta baxuenak jakiteko balio du.

Bigarren taulan ANOVA kontrastea agertzen da. Bertan, taldeen arteko ezberdintasunak (inter-grupos) eta taldeen barruko ezberdintasunak (intra-grupos) aurkezten dira. Hau da, faktoreari dagozkion diferentzia karratuak eta hondarrari dagozkion diferentzia karratuak, beren askatasun graduekin (hurrengo zutabea). Bi zutabeetako balioen arteko zatiketa eginez bariantzak lortzen dira, hauek, **Media cuadrática** zutabean agertzen direlarik. Azkenik, bi bariantza hauen arteko zatiketa eginez (bariantza faktoriala eta hondar bariantza) **F** estatistikoa lortzen da eta honi lotutako esangura. Ikus daitekeen moduan, esangura hori 0.05 baino txikiagoa da, eta beraz, 5 iragarkiek puntuazio berdina lortzen dutela adierazten duen hipotesi hutsa bazter daiteke.

Era berean, taulen ondoan eskatutako batez bestekoen grafikoa agertuko da. Abzisa ardatzean aztertutako iragarki ezberdinak agertzen dira eta ordenatu ardatzean hauek lortutako batez besteko puntuazioak. Ikus daitekeenez 4. Eta 5. iragarkiek puntuaziorik altuenak lortu dituzte eta 1. iragarkiak baxuena.



1 galdera: *Aurreko praktiketan ikusitako zein kontraste probarekin hel gaitzke ondorio berdinerara? Zein abantaila aurkezten du proba honek aurrekoarekin alderatuz?*

Post-hoc proba